

**ANEXO I**  
**ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA**  
**EGITEKO TXANTILOIA**  
**ANEXO I**  
**PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA**  
**ANUAL DE ÁREA O MATERIA**

**Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa**  
**Programación didáctica anual/de curso**

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	URIBE KOSTA BHI	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	015143
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	DBH 3
<b>arloa/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	BALIO ETIKOAK		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>áreas/materias integradas</i>			
<b>diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	XABIER ELIZBURU /MAITANE NEREKAN	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2016-2017

**Zeharkako kompetentziak / Competencias transversales:**

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

<b>helburuak</b> <i>objetivos</i>	<b>ebaluazio-irizpideak</b> <i>criterios de evaluación</i>
Hauak dira etapako helburuak Balio Etikoak ikasgairako: 1) Giza izaera onartzea dimentsio indibidualean zein sozialean, eta norberaren eta gainerako pertsonen nortasuna onartzea, dimentsio morala barne, norbanakoen arteko desberdintasunak eta pribatutasuna errespetatzeko, eta bere buruaren eta ikaskideen ikuspegi zuzena edukitzeko. 2) Komunikazio- eta gizarte-trebetasunak	1) Etikaren, politikaren eta justiziaren arteko loturak azaltzea, haien arteko antzekotasunak, desberdintasunak eta erlazioak adierazita, eta legalitatea eta legitimitatea terminoen esanahia jakitea. 2) Arau juridikoen justifikazioaren arazoa azaltzea, zuzenbide naturalaren edo iusnaturalismoaren, konbentzionalismoaren eta positibismo juridikoaren teoriak aztertuz, eta zenbait filosofoen pentsamendu juridikoan

<p>erabiltzea, eta sentimenduak eta emozioak egoki adieraztea, berdinen arteko jardueretan, eta elkarrizketa eta bitartekotza erabiltzea gatazkei heltzeko. 3) Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak aitortutako eskubideak zein diren jakitea, bere egitea eta aintzat hartzea; unibertsalak, zatiezinak eta elkarri lotuak direla ikusi eta onartzea, eta irizpide moduan hartzea gizarte-gertaerei eta egoerei zein norbanakoen eta taldeen jarrerari buruzko iritziak emateko. 4) Pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna babestea eta bidegabekeria eta diskriminazio oro arbuiatzea, batez ere generoarekin eta hark dakarren indarkeriarekin lotutakoak, 9. zk. 2016ko urtarrilaren 15a, ostirala EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA 2016/141 (268/239) bai eta etnia, sinesmenak, desberdintasun pertsonalak eta sozialak, orientazio afektibo-sexuala oinarri dutenak eta beste edozein motatakoak ere. Horren helburua da elkarbizitza bidezkoa eta berdintasunean oinarritutakoa lortzea, giza eskubideak oinarri hartuta. 5) Jakitea zer den bizitza demokratikoa, politikan eta gizartean parte hartzea eta beste antolaketa-modu batzuetan parte hartzea (lankidetzak, elkarteak, boluntarioak...), erreferentzia gaur egungo Euskal Autonomia Erkidegoan eta haren egoera historikoa izanda, eta hori guztia balioestea. Ikasleak herritar moduan dituen betebeharrak aintzat hartu beharko ditu, guztionak diren ondasunak ez galtzeko eta hobetzeko lanean, eta bizitza errespetatu beharra ardatz hartuko du, gizarte-garapen iraunkorarekin bat etorriko den bizitza-proiektu bat eraikitzeko. 6) Giza eskubideak urratzea dakarten egoerak identifikatu eta aztertzea, direla indarkeria estrukturalak eragindakoak (gerrak, pobrezia, muturreko desberdintasunak...), dela terrorismoak eragindakoak, genero-indarkeriak eragindakoak, berdinen arteko indarkeriak eragindakoak... Bakea, askatasuna, segurtasuna eta berdintasuna helburu duten ekintzak aintzat hartzea, mundu bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzeko bidea dira eta. 7) Teoria etikoen berri izan eta haiek aztertzea, eta jakitea</p>	<p>nola aplikatu den jakitea, legeen oinarri etikoari buruzko iritzi arrazoitua eratzen joateko. 3) Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala eta NBE eratzea sustatu zuen une historikoa eta politikoa aztertzea, ulertzeko bere garaian beharrezkoa izan zela eta gaur egun ere balio baduela, zuzenbidearen eta estatuen legitimitatearen oinarri den aldetik. 9. zk. 2016ko urtarrilaren 15a, ostirala EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA 2016/141 (268/243) 4) Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak zer eduki eta egitura dituen jakitea eta haiek ongi interpretatzea, balioetsi eta errespetatu egin behar dela ulertzeko. 5) Giza eskubideen bilakaera historikoa gizateriaren lorpenetako bat dela ulertzea, munduaren leku askotan emakumeen eta haurren eskubideak ezin direla gauzatu ulertzea, eta egoera horiek aintzat hartzea eta zergatik gertatzen diren jakitea, haiei konponbidea eman dakien sustatzeko. 6) Gaur egun Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala aplikatzeak zer arazo dakartzan jakitea, eta Euskal Autonomia Erkidegoan giza eskubideak babesten eta haiek gauzatzeko aukerarik ez dutenei laguntzen diharduten erakundeen eta GKEen lana balioestea. 7) Dimentsio moralak zientzian eta teknologian zer zeregin eta eragin dituen jakitea, eta muga etikoak eta juridikoak ezartzeko beharraz hausnartzea, haien jarduera Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak sustatzen dituen balioekin bat etor dadin. 8) Zientziaren eta teknologiaren arloan erabiltzea Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean bildutako balio etikoak, desegoki aplikatu ez daitezela, eta zenbaitetan, medikuntzaren eta bioteknologiaren arloan bereziki, sortzen diren dilema moralak ebatz daitezela. 9) Onartzea ikerketa zientifikoa ez dela neutrala eta interes politikoek, ekonomikoek eta bestelakoek hari eragiten diotela, eta ondorio horretara iristea aurrerapenaren ideia eta haren interpretazio teknokratikoa aztertu ondoren, ikerketa zientifikoaren helburuak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean oinarritutako kode etikoarekin bat ez datozen egoeretan. 10) Interneten bidez, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eremu pribatuan sartuz</p>
---	---

zein diren gaur egungo gizarte-gatazka eta gatazka moral nagusiak, jarrera kritikoa izateko komunikabideen bidez, Internet bidez eta beste gizarte-erakunde batzuen bidez (eskola, esaterako) helarazten diren modelo eta estereotipoekiko. 8) Nork bere diskurtso etikoa eratzea, hari dagokion irizpide moralarekin, eta etikaren eta moralaren berezko ezaugarriak eta elkarren arteko harremanak aztertzea, bizitzako egoerei inpartzialtasunez eta ikuspegi konstruktiboz heltzeko. 9) Justiziaren eta politikaren artean zer lotura dagoen jakitea, elkarren mendekoak direla aztertzea eta bata besteari informazioa nola ematen dioten jakitea, justizia bizitza demokratikoko funtsezko elementutzat aldarrikatzen duen herritar izan gaitezen sustatzeko. 10) Etika, zuzenbidea eta giza eskubideak lotuta daudela jabetzea, eta balio etikoek zer zeregin duten eta historian zehar zuzenbidean eta giza eskubideetan nola gauzatzen diren aztertzea, gure gizartean balio horiek zein mailatan betetzen diren ikusteko. 11) Etika eta zientzia eta teknologia lotuta daudela ohartzea, zientziaren eta teknologiaren aurrerapenak sortutako egoera gatazkatsuak planteatuz eta kritika eginez, haiei buruzko iritzi moralak egiteko aukera ematen duten irizpide etikoak proposatzeko.

erabiltzeak dakartzan arriskuak azaltzea; esaterako, hirugarrenek datu pertsonalen erabilera okerra egitea, ciberebullyinga, sextinga, pederastia eta abar. 18) Eskubide-berdintasunaren aldarrikapena errespetatzea, inor ez diskriminatzea bere jaiotzarengatik, arrazarengatik, generoarengatik, orientazio afektibo-sexualarengatik, erlijioarengatik, iritziarengatik edo beste edozein ezaugarri pertsonal edo sozialengatik, eta ikuspegi horrekin jokatzeko gizartean. 9. zk. 2016ko urtarrilaren 15a, ostirala EUSKAL HERRIKO AGINTARITZAREN ALDIZKARIA 2016/141 (268/175)

19) Adierazpen- eta iritzi-askatasunerako eta pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako eskubideak babestea ezinbestekoa dela adieraztea, eta horien gaineko azterketa- eta laburpen-lanak egitea. 20) Haurren eskubideak zer garrantzitsuak diren jakitea, egoera errealak aztertzea, eta gizartean nesken eta mutilen arteko eskubide-berdintasuna errespetatzea. 21) Gogoz parte hartzea gizartean eta gizonen eta emakumeen eskubide-berdintasuna eta ardura partekatuak balioestea. 22) Gizonek eta emakumeek eskubide berberak dituztela eta etxeko lanetan eta familiaren zaintzan ardura bera dutela balioestea, eskubide eta ardura horiek betetzea, eta horiek guztiak hausnarketa eginez, laburtuz eta egituratuz arrazoitzea. 23) Balio-sistema propioa eratzea, besteren aukerak errespetatzen dituen, eta eskubide unibertsaletan oinarritutako judizio moralak egitea. 24) Demokraziaren ezaugarri bereizgarriak ezagutzea eta adieraztea, eta balio zibikoek euskal gizarte demokratikoan zer-nolako garrantzia duten jakitea. 25) Natura-ondasunak arduraz erabiltzea eta ingurumenaren kontserbazioan laguntzea, gertaerak ulertuz eta interpretatuz, arrazoiak aztertuz eta ondorioak aurreikusiz. 26) Teknologia berriak eta haiek informaziorako eta jakintzarako duten ahalmena erabiltzea, ingurune seguruetan balio sozial eta zibikoak garatzeko.

--	--

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

**SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS** [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje ].

Ikasturtea 6 bloke ezberdinetan banatuko dugu, hiruhileko bakoitzean 2 landuko ditugularik. Blokeak landuko ditugun gaien arabera banatuta egongo dira, eta gai bakoitza 6 saiotan zehar luzatuko du (guztira gutxi gora behera, 12 saio hiruhileko bakoitzean).

Hau izando da banaketa:

**1. HIRUHILEKOA:**

- Giza eskubideak eta betebeharrak (6 saio).
- Parte Hartze politikoa / Herritarren baloreak.

**2. HIRUHILEKOA:**

- Aniztasunak (6 saio).
- Berdintasuna (6 saio).

**3. HIRUHILEKOA:**

- Auzolana, boluntarioria.
- Garapen iraunkorra.

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

**METODOLOGÍA** [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado desde una perspectiva inclusiva].

Metodología praktikoa eta kolaboratiboa izando da nagusiki, euren esperientzia pertsonaletik eta inguruaren ezagutzatik edango duena.

Alde batetik, hausnarketak erabiliko ditugu talde txikietan zein handietan. Bakarkako hausnarketak ere pisua izando du "Egunerokoa"n beraien hausnarketak jaso behar baitituzte saio bakoitzaren amaieran, ikasturtean zehar beraien hausnarketaren bilduma osatuz. Honekin modu autonomoan pentsatzeko eta arrazoitzeko gaitasuna landuko dugu.

Horrez gain, ikus-entzunezko materialetan oinarritutako (laburmetraiak, luzemetraiak, iragarkiak, telebista saioak etab.) ariketak egingo ditugu, batzuk taldeka, besteak bakarka.

Horrez gain, talde lanak egin beharko dituzte gai batzuen lanketarako. Ikerketa lanak izango dira eta baliabide informatikoak eskainiko zaizkie eskola orduetan hauek garatzeko. Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan saio batzuk antolatuko dira eta bertan landutakoa 3.ebaluaketan zehar ikasgeletan gauzatuko da.

**EBALUAZIO-TRESNAK** [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]

**INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN** [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico ].

**KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK** [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

**CRITERIOS DE CALIFICACIÓN** [peso y valor de cada instrumento de evaluación].

- Egunerokoa (ikasle bakoitzeko bana, egunero sainaren amanean egindako hausnarketak jasotzen disuena).
- Bakarkako lanak: hausnarketa fitxak, galdetegiak etab.
- Talde lanak: taldean egindako ikerketa lanak eta aurkezpenak.
- Euskarazko zein ingeleraazko testuak landu ahoz zein idatziz, edukiakin batera hizkuntza erabilera eta zuzentasuna bermatzeko.

**Jarrera: 2 puntu**

- Asistentzia eta puntualitatea.
- Parte hartze aktiboa.
- Errespetua.
- Ingelesaren erabilera parte hartzerako (hirueledunak diren taldeetan).

**Egunerokoa: 5 puntu**

- Egunean entregatzea: 2 puntu
- Zuzentasuna: 1 puntu.
- Edukiak: 2 puntu.

**Lan puntualak (bakarka zein taldeka): 3 puntu**

**EBALUAZIOAREN ONDORIOAK** [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupezio-sistema...].

**CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN** [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación ].

Errekuperazio sistema: ikasturtean zehar landutako gai baten inguruko ikerketa eta hausnarketa lan monografikoa entregatu beharko dute ikasgaia errekupezatzeko (hirueledunak diren taldeen kasuan, lan hau ingelesez egin beharko dute).

Behar bereziak dituen ikaslerik egonez gero, parámetro malguagoak erabiliko dira egunerokoen ebaluaketan (epe luzeagoak utzi etab.) eta talde lanetan kontuan izango da taldekideen laguntza izan dezakeen taldeetan integratzen dugula bermatzeko. Jarraipen berezia egingo diegu ikasle hauei, euren egokitzapena ona dela bermatzeko eta materiales egokitzapena behar dutenean hori ziurtatzeko.

**OHARRAK / OBSERVACIONES**

--